

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

33. astea (2026ko abuztuaren 10etik 16ra)


Gripearen eta bronkiolitisaren tasak oinarritzko mailan (inter epidemikoa) mantentzen dira. COVID-19aren tasak baxua izaten jarraitzen du.

- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 81,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (81,2/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen, bronkiolitisaren eta COVID-19aren tasak baxu mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 5 lagin jagoleen % 60,0 baieztatu da. SARS-CoV-2 bat eta 2 gripe-birus detektatu dira baina ABSik ez da atzeman.
- Osakidetzako ospitale-sarean, AIA larriaren tasa 6,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (6,7/100.000 aurreko astean).
- LMAko AIA- eta bronkiolitis- (< 2 urte) tasak eta larrialdietako gripe-sindromearen tasa oinarritzko intentsitate mailan (balio inter epidemikoa) mantentzen dira.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 28 SARS-CoV-2, 16 gripe-birus eta ABS bat erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 81,6 kasukoa izan da (81,2 /100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 93,7/100.000 izan da Araban, 74,1/100.000 Bizkaian eta 87,8/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 566,3 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 200,6 eta 86,5 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 26,3 kasukoa izan da (26,6/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute 3 ESletan (Arabako ESI, Arabar Errioxako Esi eta Goierri-Urola Garaiko ESI).


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESlaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 33. astea	Tasa 32. astea
Arabako ESI	96,6	58,8
Barakaldo-Sestaoko ESI	53,4	68,3
Barrualde-Galdakaoko ESI	77,9	83,3
Bidasoako ESI	88,6	93,8
Bilbo-Basurtuko ESI	75,4	81,7
Debararrenako ESI	76,6	107,2
Debagoienako ESI	52,7	65,1
Donostialdeako ESI	92,7	94,1
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	83,6	86,7
Goierri-Urola Garaiko ESI	84,9	80,8
Arabar Errioxako ESI	297,2	203,8
Tolosaldeako ESI	86,5	88
Uribeko ESI	66,3	72,6

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAren jagoletzaren metodologia](#)

Lehen Mailako Arretan (LMA), gripe-sindromearen tasa 0,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (aurreko astean 0,4/100.000). Bronkiolitisaren tasa (bi urtetik beherakoetan) 14,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (aurreko astean 28,9/100.000), eta COVID-19aren tasa 1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (aurreko astean 0,5/100.000).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 5 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 60,0 baieztatu dira. SARS-CoV-2 bat eta 2 gripe-birus atzeman dira eta ez da ABSrik atzeman.

AIA intzidentzia-tasa LMA eta sare jagoleen detektatutako arnas birus kopurua,
aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



Aste honetan, SARS-CoV-2aren positibotasun-tasa %20,0koa izan da; gripearen birusarena, berriz, %40,0koa, eta VRSarena %0,0an mantendu da.

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE


	33. astea		32. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	2	40,0	0	0,0	385	23,5
SARS-CoV-2	1	20,0	0	0,0	26	1,6
ABS	0	0,0	0	0,0	99	6,0
Metaneumobirus	0	0,0	0	0,0	71	4,3
Parainfluenza	0	0,0	0	0,0	71	4,3
Adenobirus	0	0,0	0	0,0	39	2,4
Errinobirus	0	0,0	1	33,3	321	19,6
Urtaroko CoV	0	0,0	0	0,0	98	6,0
Enterobirus	0	0,0	0	0,0	24	1,5

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 6,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (6,7/100.000 aurreko astean).

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen eman da 100.000 biztanleko 18,7 kasurekin, ondoren urte batetik beherakoen adin-taldean eta 45-64 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 7,3 eta 4,3 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



VRSaren diagnostiko-kodeekin (J12.1, J20.5 eta J21.0) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 0,0 kasutan mantendu da 100.000 biztanleko. Gripearen kodeekin (J09-J11) lotutako ospitaleratzeen tasa 0,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (0,1/100.000 aurreko astean), eta COVID-19arekin (U07.1) lotutako ospitaleratzeena 0,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (0,4/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 1,1koa izan da aste honetan (% 6,9 aurreko astean), gripe-birusarena % 3,9an kokatu da (% 2,4 aurreko astean) eta ABSren positibotasuna % 0,0an mantendu da.

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	33. astea		32. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	88	1,1	87	6,9	9676	1,4
Influenza	76	3,9	82	2,4	9791	17,2
ABS	64	0,0	77	0,0	8819	12,5

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoen arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akuatuak (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbatesteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.

Lehen mailako arretako AIArein zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gainditu da, 2026/08 astean gaur egun mantentzen den oinarritzko mailara bueltatuz. Epidemian intentsitate maila baxuko gailurra neurtu da.


**AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Gripe-sindromearen, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuen arabera, atalase epidemikoa 2025/42 astean gaingitu da, 2026/05 astean gaur egun mantentzen den oinarrizko mailara bueltatuz. Kasu honetan, epidemiaren intentsitatea maila alturaino heldu da.


**Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Azkenik, 2 urtetik beherakoen lehen mailako arretako bronkiolitisaren diagnostikoei dagokienez, atalase epidemikoa 2025/48 astean gaingitu da, 2026/05 astean gaur egun mantentzen den oinarrizko mailara bueltatuz. Epidemian, intentsitatea ez da maila baxutik pasa.

Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE




Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan, 28 SARS-CoV-2, 16 gripe-birus eta ABS bat erregistratu dira aste honetan.

Aste honetan detektatutako 6 gripe-birusetatik, 4A motakoak izan dira eta 12 A(H3) azpimotakoak. 2025/40 astetik 8813 detekzio erregistratu dira, 8757 (% 99,4) A motakoak eta 56 (% 0,6) B motakoak. Azpitipatutako A motako 4677 birusetatik, 2787 (% 59,6) A(H3) eta 1890 (% 40,4) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2026ko abuztuak 19

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza